



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2001eko irailaren 17an

91 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru lege proiektua, martxoaren 13ko 2/1989 Foru Legea, ikuskizun publikoak eta josteta jarduerak arautzen dituen aldatzekoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (5. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Unibertsitate Publikoa sortzeari buruzko apirilaren 21eko 8/1987 Foru Legea aldatu eta Tuteran unibertsitate-ikasketak ezartzeari buruzkoa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua (6. or.).

—Foru Lege proposamena, toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzeari buruzkoa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua (8. or.).

—Foru Lege proposamena, etxeko indarkeriari eta bikotekideen arteko aurrea hartzeko neurriei buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (12. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da administrazioa erreformatzeko plan bat egin dezan, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua (13. or.).

—Mozioa. Horren bidez proposatzen da Internetera konektatutako ordenagailuak erosteko laguntza kanpaina luza dadin, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua (14. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da plan bat ezar dezan bidezain eta suhiltzaileen etxeak deiturikoak okupatzeko, Batasuna Parlamentuko Taldeak aurkeztua (15. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Lehendakaria premiatzen da Osasun kontseilaria berehalaxe kendu dezan kargutik, Batasuna Parlamentuko Taldeak aurkeztua (16. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Ondasun higiezin eta garraioaren sektoreak liberatzeko presazko neurriei buruzko 4/2000 Errege Lege Dekretua indargabetu dezan, bai eta lege proiektua erretiratu ere, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua (17. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak, 2000 urtean zehar, aldi baterako eginiko kontratuei buruzkoa, Batasuna Parlamentuko Taldeak egina (20. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak Burlatan beste ikastetxe bat egiteko asmorik duen jakiteko, Batasuna Parlamentuko Taldeak egina (21. or.).
- Galdera, Altsasuko Galdan enpresak botatzen dituen ke toxikoei buruzkoa, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak egina (22. or.).
- Galdera, Vianako Printzea Erakundeak txostenak eta hirigintza planak onesteko erabiltzen dituen prozedurei buruzkoa, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak egina (23. or.).
- Galdera, Itoizko urtegian kata arkeologiko edo indusketarik egin den jakiteko eta kaltetutako ondasunei buruzko beste zenbait alderdi ezagutzeko buruzkoa, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak egina (23. or.).
- Galdera, Nafarroa jatorriko deitura duten ardoak sustatzeari buruzkoa, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina (24. or.).
- Galdera, Erriberriko ardo museoari buruzkoa, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina (24. or.).
- Galdera, Martzillan oinezkoentzako pasabide bat eraikitzeke eskaerari buruzkoa, foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak egina (25. or.).
- Galdera, aurrekontuko “Gizarte-komunikabideetako euskarari buruzko programak” kontusailari buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina (26. or.).
- Galdera, aurrekontuko “Euskarari buruzko programa eta ekimen kulturalak” kontusailari buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina (26. or.).
- Galdera, aurrekontuko “Eremu ez-euskalduneko ikastolentzako diru-laguntza berezia” kontusailari buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina (27. or.).
- Galdera, aurrekontuko “Azterlan eta proiektu soziolinguistikoak egitea” kontusailari buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina (27. or.).
- Galdera, aurrekontuko “Nafarroako udal eta kontzejuei euskararen arloan laguntzeko programa” kontusailari buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina (28. or.).
- Galdera, aurrekontuko “Euskarazko argitalpenen eta ikus-entzunezkoen funtsak eskuratzea” kontusailari buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina (28. or.).
- Galdera, aurrekontuko “Interes kultural eta artistikoko ondasunak eskuratzea” kontusailari buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina (29. or.).
- Galdera, aurrekontuko “Pablo Sarasate Fundazioarekin hitzarmena” kontusailari buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina (29. or.).
- Galdera, aurrekontuko “Barandiaran Fundazioarekin hitzarmena” kontusailari buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina (30. or.).
- Galdera, aurrekontuko “Eusko Ikaskuntzarekin hitzarmena” kontusailari buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina (30. or.).
- Galdera, aurrekontuko “Liburutegi-sarerako argitalpenen eta ikus-entzunezkoen funtsak eskuratzea” kontusailari buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina (31. or.).
- Galdera, aurrekontuko “Kultur etxeak eta bestelako udal kultur guneak eraiki eta haiek ekipamenduz hornitzea” kontusailari buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina (31. or.).
- Galdera, aurrekontuko “Argitalpenak erosi eta haien harpidetza egitea” kontusailari buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina (32. or.).
- Galdera, aurrekontuko “Teresatarren eraikina egokitzea” kontusailari buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina (32. or.).
- Galdera, aurrekontuko “0 eta 3 urte arteko haurrak eskolatzeko hitzarmenak udalekin” kontusailari buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina (33. or.).
- Galdera, aurrekontuko “Informatikako eta bestelako ekipamendua gizarte-ekimeneko zentroetan” kontusailari buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina (33. or.).
- Galdera, aurrekontuko “Irakaskuntza pribaturako diru laguntza Lehen Hezkuntzan” kontusailari buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina (34. or.).

- Galdera, aurrekontuko “Irakaskuntza pribaturako diru laguntza, Bigarren Hezkuntzako 2. zikloan” kontusailari buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina (34. or.).
- Galdera, aurrekontuko “Irakaskuntza pribaturako diru laguntza, Batxilergoan” kontusailari buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina (35. or.).
- Galdera, aurrekontuko “Irakaskuntza pribaturako diru laguntza, Hezkuntza Berezian” kontusailari buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina (35. or.).
- Galdera, aurrekontuko “Testu-liburuak eta eskola-materiala erosteko laguntzak” kontusailari buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina (36. or.).
- Galdera, aurrekontuko “Irakaskuntza ertain eta goi mailako ikasketetarako beka eta laguntzak” kontusailari buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina (36. or.).
- Galdera, aurrekontuko “Eraikin berriak egitea eta egokitze-lanak” kontusailari buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina (37. or.).
- Galdera, aurrekontuko “Aldi baterako langileak kontratatzea kanpainetarako” kontusailari buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina (37. or.).
- Galdera, aurrekontuko “Unibertsitatez bestelako ikasketetarako ikastetxe publikoen funtzionamendua, jarduerak eta hornidura materiala finantzatzea” kontusailari buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina (38. or.).
- Galdera, aurrekontuko “Hezkuntza-sistemaren ebaluazioari buruzko azterlanak” kontusailari buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina (38. or.).
- Galdera, aurrekontuko “Atzeritarrentzako beka, hizkuntza irakaspenetarako” kontusailari buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina (39. or.).
- Galdera, aurrekontuko “Ikasketetan sakontzeko beka” kontusailari buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina (39. or.).
- Galdera, aurrekontuko “Irakaskuntza-batzordeen programak” kontusailari buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina (40. or.).
- Galdera, aurrekontuko “Familia eta partikularrentzako laguntzak” kontusailari buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina (40. or.).
- Galdera, aurrekontuko “Irakaskuntza pribaturako diru laguntza Haur Hezkuntzako 2. zikloan” kontusailari buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina (41. or.).
- Galdera, aurrekontuko “Irakaskuntza pribaturako diru laguntzak maila ertaineko heziketa zikloetan eta gizarte-bermeko programetan” kontusailari buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina (41. or.).
- Galdera, aurrekontuko “Enpresetan praktikak egiten diren ikasleentzako laguntzak” kontusailari buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina (42. or.).
- Galdera, aurrekontuko “Enpresentzako sariak praktiketako ikasleak hartzeagatik” kontusailari buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina (42. or.).
- Galdera, aurrekontuko “Hezkuntza-berrikuntzako programak” kontusailari buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina (43. or.).
- Galdera, aurrekontuko “Berriazko beharizanak dauzkaten ikastetxeetarako laguntzak” kontusailari buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina (43. or.).
- Galdera, aurrekontuko “Lanbide-hastapenetarako programen funtzionamendu-gastuak” kontusailari buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina (44. or.).
- Galdera, aurrekontuko “Osasun-programetarako laguntzak” kontusailari buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina (44. or.).
- Galdera, aurrekontuko “Prebentziorako eta osasuna sustatzeko programetarako hitzarmenak” kontusailari buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina (45. or.).
- Galdera, aurrekontuko “Drogamenpekotasunari aurre egiteko udal planetarako diru laguntza” kontusailari buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina (45. or.).
- Galdera, aurrekontuko “Erakundeentzako diru laguntza, erkidego-prebentzioko programetarako” kontusailari buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina (46. or.).
- Galdera, aurrekontuko “Lan-osasuneko eta laneko arriskuen prebentziorako programak” kontusailari buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina (46. or.).
- Galdera, aurrekontuko “Laneko arriskuen prebentziorako beste gastu batzuk” kontusailari buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina (47. or.).

- Galdera, Behi-aziendaren entzefalopatia espongiformearen aurkako planari buruzkoa, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak egin (47. or.).
- Galdera, Hazkuntza estentsiboaren bidez haragitarako behi-azienda sustatzen duten lehentasunezko abeltzaintza ustategientzat onetsitako laguntza berezi eta bakarrari buruzkoa, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak egin (48. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru lege proiektua, martxoaren 13ko 2/1989 Foru Legea, ikuskizun publikoak eta josteta jarduerak arautzen dituen aldatzekoa

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko irailaren 10ean egindako bilkuran, ondoko Erabakia hartu zuen, besteak beste:

“Biltzarreko Erregelamenduko 106. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Martxoaren 13ko 2/1989 foru legea, ikuskizun publikoak eta josteta jarduerak arautzen

dituen aldatzeko Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea 2001eko irailaren 28ko eguerdiko hamabiak arte luzatzea.

Bigarrena.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.”

Iruñean, 2001eko irailaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Unibertsitate Publikoa sortzeari buruzko apirilaren 21eko 8/1987 Foru Legea aldatu eta Tuteran unibertsitate-ikasketak ezartzeari buruzkoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko irailaren 10ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobezeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Nafarroako Unibertsitate Publikoa sortzeari buruzko apirilaren 21eko 8/1987 Foru Legea aldatu eta Tuteran unibertsitate-ikasketak ezartzeari buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Nafarroako Unibertsitate Publikoa sortzeari buruzko apirilaren 21eko 8/1987 Foru Legea aldatu eta Tuteran unibertsitate-ikasketak ezartzeari buruzko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Bigarrena.- Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2001eko irailaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**Foru Lege proposamena,
Nafarroako Unibertsitate Publikoa
sortzeari buruzko apirilaren
21eko 8/1987 Foru Legea aldatu
eta Tuteran unibertsitate-ikasketak
ezartzeari buruzkoa**

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Unibertsitate Publikoa jaiotzen izana, bai eta orduan onartu zen unibertsitate eredu bera ere, nafar gizartea modernizatzeko borondate politikoa zor zaio. Unibertsitate publiko baten egin beharra, ordea, aldiro egokitu behar da, haziz doan gizarte-dinamismoak planteatzen dituen eskari eta beharrezkoak garatu ahala hain zuzen ere, gizartearen garapenera uneoro modu eragin-garrian laguntzeko, gizartearen zerbitzura dago eta. Jakintza eta gizarte jaioterriak –hartarantz baikoaz– areagotu egiten du, gizartearen garapenerako giltza den aldetik, unibertsitate erakundearen garrantzia. Horregatik da hain garrantzitsua Nafarroako Unibertsitate Publikoaren plangintza estrategikoa bat etortzea Foru Komunitateak bere erakunde publikoen bitartez ezartzen duen garapenerako estrategia orokorrarekin.

Gaurko egoeran beharrezkoa da Nafarroak neurriak hartzea oraindik ezkutuan dagoen lurralde- eta sektore-ahalmena sustatu ahal izateko eta gizarte garatuen eta berdinezkoen mailara indartsu heltzeko. Eta hain zuzen ere, Nafarroako Unibertsitate Publikoak zeregin nabarmena izan dezake eta izan behar du helburu hori lortzerakoan.

Une honetan –hori erakusten dute argiro egindako azterlanek– zeharo bidezkoa da jadanik sustaerriak bota dituen Nafarroako Unibertsitate Publikoaren eskaintza osatzea eta Nafarroako Erriberaraino eramatea unibertsitate, titulazioen egungo eskaintza zabalduz, egungo ekonomia-zein gizarte-jardueraren ondorioz eskaera handia

duten titulazioetako batzuk –eta hartara aukera profesional zabala eskaintzen dutenak– bertan jarrita.

Horrekin eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa sortu zuen apirilaren 21eko 8/1987 Foru Legearen izpirituarekin bat etorritik –hartan espresuki esaten da haren helburuen artean dagoela “unibertsitatea hedatzea gizarte-bizitzan presente egon dadin”–, ematen du komenigarria dela foru lege horren helburuak erdiesteko neurriak hartzea.

Hori dena aintzat hartuta –eta unibertsitatearen autonomiarekiko eta Nafarroako Parlamentuak unibertsitateko organoak agindu eta onartutako zereginekiko errespetu osoa aitortuta–, ematen du unibertsitatea sortzeko baliatu zen tresna bera erabili behar dela hartan halako aldaketa bat egiteko.

Helburu horrekin erabaki da Tuteran unibertsitate-ikasketak ezartzea Nafarroako Unibertsitate Publikoaren ikastetxe berekiak bertan jarritz. Ondoko hiru urteotan hasiko da bertan irakasten gisa honetako titulazioetako ikasketak:

- Industria elektronikako ingeniari teknikoa
- Industria diseinuko ingeniari teknikoa
- Informatika ingeniaria
- Sistemen informatikako ingeniari teknikoa
- Kudeaketa informatikako ingeniari teknikoa
- Zinema eta Ikus-entzunezkoen nazioarteko eskola
- Fisioterapiari diplomatua
- Lanaren bidezko terapiari diplomatua

Helburu horiek lortzeko onetsi da, Unibertsitateen Kontseiluak txostena egin ondotik, foru lege hau, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 47. artikulua Nafarroari aitortzen dion eskumen osoa baliatuta.

Artikulu bakarra. Xedapen gehigarri bat erantsi zaio Nafarroako Unibertsitate Publikoa sortu zuen apirilaren 21eko 8/1987 Foru Legeari. Hona xedapen horren testua:

3.1. Nafarroako Unibertsitate Publikoak, Unibertsitateen Kontseiluak alde aurretik txostena egin ondotik zentro berriak sortu ahal izatea ezertan eragotzi gabe, ondokoak izanen ditu Tuteran:

- Eskola politeknikoa
- Osasun eskola
- Zinema eta Ikus-entzunezkoen eskola

2. Hiru urteko epean hasiko da irakasten, gutxienez ere, ondoko titulazioetako ikasketak berekiak:

- Industria elektronikako ingeniari teknikoa
- Industria diseinuko ingeniari teknikoa
- Informatika ingeniaria
- Sistemen informatikako ingeniari teknikoa
- Kudeaketa informatikako ingeniari teknikoa
- Zinema eta Ikus-entzunezkoen nazioarteko eskola
- Fisioterapiari diplomatua
- Lanaren bidezko terapiari diplomatua

Azken xedapenak

Lehena. Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio foru lege hau betearazteko behar adina xedapen eman ditzan.

Bigarrena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Xedapen indargabetzailea

Indarrak gabe geldituko dira foru lege honi kontra egiten dioten maila berdineko edo txikiagoko xedapen guztiak.

Foru Lege proposamena, toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzeari buruzkoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko irailaren 10ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artiku-luak aitortzen dion legegintzarako ekimena erabi-liz, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzeari buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145, 149 eta 150. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Toki administrazioari buruzko uztai-laren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzeari buruzko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlametu-ko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Bigarrena.- Foru Lege proposamen hori Nafa-roako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2001eko irailaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzeari buruzkoa

ZIOEN AZALPENA

Espainiako 1978ko Konstituzioak jasotzen duen Administrazio ereduaren abiapuntua da administrazio publikoak interes orokorren zerbitzu-an dauden eta deszentralizazio nahiz eraginkortasun printzipioei jarraituz jarduten duten erakunde-tzat hartzea.

Gauza jakina da 1978ko Konstituzioak toki kor-porazioei euren interesak kudeatzeko autonomia aitortzen diela, 137. artikuluan. Eta begi-bistakoa da printzipio horretatik eratorria dela toki-eskume-nen sistemaren egituraketa. Dena den, Konstitu-zioak toki erakundeei toki autonomia bermatzen badie ere, ez du aipaturiko autonomia egikaritu daitekeeneko arloen zerrenda zehatzik agertzen.

Toki Araubidearen Oinarrien 1985eko Legea da toki administrazioaren araubide juridikoaren oinarriak zehazteko eginkizuna duen araua, eta,

2. artikuluan, legegileari agintzen dio Konstituzio-ak bermatzen duen autonomia hori eraginkorra izateko beharrezkoak diren eskumenak eslei die-zazkiela toki erakundeei.

Toki aginteetako ordezkariak eskumen gehia-go eskatu izanak eta Espainiako Udal eta Probint-zien Federazioak (EUPF) ildo berean hartutako erabaki ugariak Toki Araubidearen Oinarrien Legea aldatzera behartu zuten Nazioko Gober-nua. Toki erakundeei eta EUPFk aldaketa hori nahikoa ez dela jotzen badute ere, apirilaren 2ko 7/1985 Legean eta apirilaren 4ko 11/1999 Legean aldaketak onetsi ondoren komenigarria da arau-egokitzapena egitea, aldaketa horiek Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari eginez, toki erakundeei berme demokratiko handiagoak eskainiz funtzio-natzea lortzearen, betiere Nafarroako toki era-kundeen errealitatea gogoan izanik.

Horretarako onesten da Nafarroako Toki Admi-nistrazioari buruzko Foru Legea 8, 45, 76, 77, 78, 83, 93, 107, 130, 132, 226, 319, 325, 333, 341, 342, 343 eta 345. artikuluetan aldatzeko Foru Lege hau.

8. artikulua

1. Nafarroako udalen antolamendua eta horien gobernu- eta administrazio-organoen eraketa Estatuko gainerakoek dituztenei aplikatzen zaiz-kien xedapenei lotuko zaizkie.

2. Udalen gobernu- eta administrazio-organo-en eskurantzak legedia orokorrean ezarritakoari jarraikiz erabiliko dira, Foru Lege honen ondorio diren berezitasunak ezertan galarazi gabe.

3. 2.000 biztanle baino gehiagoko udaletan eta gutxiagokoetan ere –baldin eta haien Erregela-mendu Organikoak hala xedatzen badu–, honako eginkizun hauek izanen dituzten organoak izanen dira: osoko bilkuran erabaki beharrekoak diren gaiei buruzko azterlan eta txostenak egin edo kontsulta eskaintzea, eta alkatearen, gobernu batzordearen eta delegaturiko eginkizunak dauz-katen zinegotzien kudeaketaren jarraipena egitea. Hori guztia, osoko bilkurari dagozkion kontrol-eskumenak galarazi gabe. Udalbatza osatzen duten talde politiko guztiek organo horietan parte hartzeko eskubidea izanen dute, Estatuko lege-diak ezarritako bermeek babesturik.

45. artikulua

6/1990 Foru Legeko 3.c) artikulua aipatzen dituen toki entitateen antolamendu, funtzionamendu, eskumen eta diru baliabideak arautuko dira legez ezarrita dituzten erregelamendu, ordenantza, koto, paramento, hitzarmen, akordio, sententzia edo itunen bidez.

Gobernu-organoak honako prozedura honi jarraituz hautatuko dira:

a) Haien batzarrak udalen edo kasuan kasuko erakundeen ordezkariak osatuko dituzte.

b) Erakunde exekutiboak (batzorde exekutibo edo zuzendaritza-batzordeak eta abar) batzarkideen artean hautatuko dira, Hauteskunde Lege Orokorrak toki erakundeen hauteskundeetarako ezartzen duen prozedurari jarraituz (zerrenda itxiak, blokeatuak eta D'Hont sistema).

76. artikulua

1. Toki erakundeetako kide hautetsiek beren esku izanen dituzte erakunde horietan dauden dokumentu eta artxibo guztiak eta haien eginkizuna betetzeko beharrezkoak direnak.

2. Toki entitateek erregelamendu bidez arautu ahalko dute eskubide horren egikaritzea. Ebazpen arrazoitua eman beharko zaio eskaerari, udaleko erregistroan aurkeztua izan denetik bost egun naturaleko epean.

3. Udalbatzako kideei informazioa ukatzen dienak bere gain izanen du horren erantzukizuna.

77. artikulua

1. Osoko bilkura arrunta gutxienez ere hilabetean behin eginen da 10.000 biztanle baino gehiagoko udaletan; bi hilabetean behin 10.000 biztanle baino gutxiagoko udaletan.

2. Ohiz kanpoko osoko bilkurak izanen dira:

a) Udalbatzako buruak erabakitzen duenean.

b) Udalbatzako kideen legezko kopuruaren laurdenak, gutxienez ere, eskatzen duenean. Zinegotzi bakoitzak ezin izanen du urtean horietako hiru baino gehiago egin daitezen eskatu.

c) Legezko xedapen batek agintzen duenean.

3. Aurreko zenbakiko b) letrak aipatzen duen kasuan, eskabidea egin eta ondoko lau egunen barnean egin beharko da bilkurarako deia, eta bilkura egitea ezin izanen da hamabost egun baliodun baino gehiago atzeratu eskatu zen egunetik. Deialdiari atxikiko zaio ekimenaren egileek proposaturiko gai-zerrenda, eta udalbatzako buruak

beste gai batzuk ere sar ditzake, egokitzen jotzen badu.

Eskatzaileek proposaturiko gai-zerrendako gaiak ezin izanen zaizkio gehitu bestelako gai batzuk dituen osoko bilkura arrunt edo ohiz kanpoko bati baldin eta deialdia eskatu dutenek ez badute espresuki baimentzen.

Aipaturiko zinegotzi-kopuruak eskaturiko ohiz kanpoko osoko bilkurarako deirik Udalbatzako buruak ez badu adierazi den epean egiten, hartarako deia automatikoki egingo da epe hori bukatu eta bosgarren egun balioduneko hamabietarako. Udalbatzako idazkariak horren berri emanen die udalbatzako kide guztiei lehen adierazitako epea bukatu eta biharamunean. Udalbatzako burua edo legez haren ordezkari izan behar duena ez badaude, osoko bilkura behar bezala eratuta egonen da Foru Lege honetako 79.1 artikuluan eskaturiko quoruma betetzen baldin bada; kasu horretan, bilkurako buru arituko da bertaratuen artean zaharrena dena.

78. artikulua

2. puntuko bigarren lerroaldea honako testu honekin ordeztea:

Dokumentazio guztiak, alkatearen ebazpenak eta Gobernu Batzordearen ebazpenak barne, izan beharko du eztabaidaren eta, kasua bada, bozketaren oinarri, eta Udalbatzako kideen esku egon beharko du, idazkaritzan, deialdiaren egunetik aurrera.

83. artikulua

1. Osoko bilkura arruntetan, Udalbatzako gainerako organoak kontrolatzen emandako bilera-zatiak izaera berekia izan beharko du, ebazpenak emateko zatitik berezia. Haren funtzionamenduan eta, kasua bada, araubidean, eraginkortasunez bermatu beharko da udal talde guztiek parte hartu ahal izatea eskaerak, galderak eta mozioak aurkezteko eginkizunean.

2. Udalbatzako kideek osoko bilkuran eskaerak edo galderak egin ahalko dituzte, ahoz nahiz idatziz.

3. Bilkura batean ahoz eginiko galderei ez badie berehalako erantzunik ematen galdera horien hartzaileak, hurrengo bilkuran eman beharko zaie arrapostu, eta bilkura hasi baino gutxienez ere hogeita lau ordu lehenago egindako galdera idatziei bilkura horretantxe emanen zaie arrapostu, galderaren hartzaileak hurrengo saiorako atzera daitezen eskatu ezean.

93. artikulua

Honako testu hau gehitzea:

Udalek bai erregelamendu bidez bai osoko bilkurak harturiko erabaki baten bidez arautu ahalko dute biztanleek informazio batzordeetan eta osoko bilkuran parte hartzea.

Biztanleek ordenantzak onets daitezten sustatu ahalko dute, udal erregelamendu batek ezarritakoari jarraituz.

107. artikulua

1. Toki erakundeek euren helburuak betetzeko behar dituzten ondasun higikor edo higiezinak kostu bidez eskuratzea Udaltzako buruaren eginkizuna izanen da, horren zenbatekoa aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko hamar baino handiagoa ez denean.

2. Gainerako kasuetan, eskurapena Udaltzako osoko bilkurak egingen du. Eskurapenak bi aurrekontualdi edo gehiagoko aurrekontuak kargatu behar dituenean, udaltzako kideen legezko kopuruaren gehiengo absolutuz hartu beharko da erabakia.

3. Ondasun higiezinak eskuratzeko, alde aurretik horien balorazio tekniko egin beharko da.

130. artikulua

1. Udaltzako buruaren eskumenekoak izanen dira toki entitateen ondasunen erabilerari buruzko egintzak, honako kasu hauetan:

a) Lizentziak emateari buruzkoak direnean.

b) Ondasun pribatuen kostu bidezko erabilera egitean, epea bost urtekoa baino luzeagoa ez bada eta zenbatekoak lehen aurrekontualdiko aurrekontuen baliabide arrunten ehuneko hamar gainditzen ez badu.

2. Gainerako kasuetan, eskumena osoko bilkura izanen da.

132. artikulua

1. Toki erakundeen ondasunak besterentzeko, alde aurretik besterengarritasun deklarazioa egin behar da, jatorriz ondare-ondasunak direlako, edo izaera hori hasieran zuten kalifikazio juridikoa aldatzeagatik lortu dutelako.

2. Besterentzea egiteko, toki erakundeko osoko bilkuraren edo gobernu- eta administrazio-organoren erabakia behar da. Besterentzeko den ondasunaren zenbatekoak aurrekontuen baliabide arrunten ehuneko hogeitaz gainditzen badu, erabakia udaltzako kideen legezko kopu-

ruaren gehiengo absolutuz hartuko da. Hala ere, udaltzako buruak toki erakundearen helburuak betetzeko beharrezkoak ez diren ondasun higigarri eta higiezinak besterendu ditzake, horien zenbatekoak aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko hamar gainditzen ez badu.

3. Ondasunak besterentzeko, alde aurretik horien balio justua modu fede-emailean frogatuko duen balorazio tekniko beharko da.

4. Ohizko gastuak finantzatzeko ezin izanen dira ondare-ondasunak besterendu, soberakin diren lur zatiak edo gauza ez erabilgarriak diren salbu.

226. artikulua

1. Kontratatzeko eskumena honako hauek izanen dute:

A. Udal eta kontzejuetan:

a) Batzako buruak, baldin eta zenbatekoak ez badu aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko hamar gainditzen, eta, zenbatekoa aipaturikoa baino handiagoa denean, urtebetekoa baino iraupen luzeagokoak ez izanik urteko aurrekontuan kontsignaturikoa baino kreditu handiagoak beharrezkoak ez dituztenak. Halaber, urte bat baino gehiagorako kontratazioak haren eskumen izanen dira haien iraupena lau urte baino luzeagoa ez denean, baldin eta urte bakoitzean ordaindu beharreko kopuruen batura ez bada aipaturiko ehuneko baino handiagoa. Ehuneko hori lehen aurrekontualdiko aurrekontuaren baliabide arrunten gainean hartu behar da.

b) Gainerako kasuetan, osoko bilkurak, Batzarreak edo Kontzeju Irekiak.

B. Mankomunitate, tradiziozko batasun eta elkarte izaerako bestelako toki erakundeetan, bakoitzaren estatutuetan xedatutakoari jarraituko zaio, eta udalentsat ezarritakoa ordezkotzeko gisa aplikatuko da.

2. Toki erakundeen organoei esleitutako kontratatze ahalmenak kasuan kasuko administrazioaren beste organo batzuei delegatu ahalko zaizkie.

Osoko Bilkurak bere eskumenekoak diren urte bat baino gehiagorako kontratuak emateko duen ahalmena ezin izanen da delegatu. Legeak kontratua ezartzeko gehiengo kualifikatua eskatzen duenean ere ez, oro har.

319. artikulua

1. idatz-zatia honako testu honen bidez ordeztu:

1. Horrelakoak emateko eskumena toki erakundeko buruarena izanen da, arloko legediak besterik xedatu ezean.

325. artikulua

1. Tokiko erregelamenduak eta ordenantzak honako prozedura honi jarraituz onetsiko dira:

a) Toki erakundeko osoko bilkurak hasierako onespena ematea.

b) Jendaurrean jarri, onespenean erabakia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta erakundeko iragarki oholean iragarri ondotik, hogeita hamar egunez gutxienez, epe horretan herritar eta interesatu legitimoek espedientea aztertu eta erreklamazioak, kontrako iritziak edo oharra egin ahal izan ditzaten.

c) Aurkezten diren erreklamazio, kontrako iritzi edo oharra ebatzea, eta a) atalean aipatu den organoak behin betiko onespenean erabakitzea.

Hala ere, hasierako onspenean erabakia behin betikoa izatera pasako da baldin eta erreklamazio, kontrako iritzi edo oharri aurkeztu ez bada.

2. Herri ondasunen aprobetxamendua arautzen duten ordenantzak, baita fiskalak ere, onesteko, beharrezkoa da batza osatzen duten kideen legezko kopuruaren gehiengo absolutuak aldeko botoa ematea.

3. Erregelamendu eta ordenantzak aldatzeko egin beharreko tramiteak onspenean emateko berberak izanen dira.

333. artikulua

1. Nafarroako toki erakundearen egintza eta erabakietatik Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioaren kontrolari lotuak daudenak inpugnatzen ahal dira honako bide hauetakoren baten bitartez:

a) Legedi orokorrak ezarritako jurisdikzio- edo administrazio-errekurtsoak eskudun diren organoetan aurkeztuz.

b) Kapitulu honen bigarren atalak aipatzen duen gora jotzeko errekurtsua Nafarroako Administrazio Auzitegian aurkeztuz. Auzitegi horren ebazpenek, espresuek nahiz ustezkoek, foru administrazioaren bideari amaiera emanen diote, eta administrazioarekiko auzietako jurisdikzio organo eskudunetan inpugnatu ahalko dira.

2. 1 b) zenbakian eta kapitulu honetako bigarren atalean xedatua ulertu behar da toki erakundearen Estatuko edo Foru Komunitateko administrazioetik delegatu zaizkien eskumenak erabiliz gauzaturiko egintzen edo harturiko erabakien aurka bidezkoak diren errekurtsuak eta adminis-

trazio delegatzaileak horiek ebatzi ahal izana ezertan galarazi gabe.

341. artikulua

Foru Komunitateko administrazioak juzkatzen badu toki erakunde baten egintza edo erabakiak ordenamendu juridikoa hausten duela Foru Komunitatearen eskumenekoak diren gaitan, neurri hauetakoren bat hartu ahalko du:

a) Toki erakundeari errekerimenduz eskatzea egintza edo erabaki hori deusezta dezan.

b) Aipaturiko egintza edo erabakia administrazioarekiko auzietako jurisdikzioan zuzenean inpugnatzea.

342. artikulua

1. Foru Komunitateko administrazioak aurreko artikuluko a) letrak aipatzen duen errekerimendua erabiltzea erabakitzen duenean, hura artikuluko hau espreski aipatuz formulatu beharko du, egintza edo erabakiaren jakinarazpena jaso ondorengo hamabost egun balioduneko epean. Errekerimendua arrazoitua izan beharko du, urratutzat jotzen den araudia zein den adierazi beharko du, egintza edo erabakia deusezta dadila eskatu, eta egintza edo erabakiaren egile den toki erakundeak deuseztapena zein epean egin beharko duen adierazi. Epe hori ezin izanen da hilabetekoa baino luzeagoa izan.

2. Toki erakundeak errekerimenduari kasurik egiten ez badiu, Foru Komunitateko administrazioak egintza edo erabakia inpugnatu ahalko du, administrazioarekiko auzietako jurisdikzioan, jurisdikzio hori arautzen duen legeak izaera horretako errekurtsua aurkezteko adierazitako epean, zeina zenbatuko baita toki erakundeari zuzendutako errekerimenduaren muga-egunaren biharamunetik aurrera edo hark errekerimenduari ezezko erantzuna emateko bidalitako jakinarazpena jasotzen den egunaren biharamunetik aurrera, deuseztapenerako ezarritako epearen barnean jasotzen bada.

343. artikulua

Foru Komunitateko administrazioak administrazioarekiko auzietako jurisdikzioan zuzenean, errekerimendurik formulatu behar gabe, inpugnatu ahalko ditu, jurisdikzio hori arautzen duen legeak adierazitako epean, Nafarroako toki erakundearen egintza edo erabakiak, baldin eta Foru Komunitatearen eskumenekoak diren gaitan ordenamendu juridikoa urratzen badute.

345. artikulua

1. Nafarroako toki erakundeak beharturik daude Foru Komunitateko administrazioari, erregelamenduz ezartzen diren epeetan eta moduan, haien egintza eta erabakien kopia edo, kasu bada, laburpena igortzera. Udalbatzetako buruak eta, zuzenean, idazkariak, eginbehar hori betetzearen erantzule izanen dira.

2. Foru Komunitateko administrazioak eskatu ahalko du aurreko zenbakiak aipatzen duen informazioa osatzea, eta informazio gehigarri hori igorri beharko da hogeit egun balioduneko epean, gehienez ere. Kasu horretan, 342. artikuluko 1. zenbakian eta 343. artikuluan ezarritako epeak eten egingen dira, eta dokumentazioa jasotzen denetik aurrera zenbatzen segituko dira.

Foru Lege proposamena, etxeko indarkeriari eta bikotekideen artekoari aurrea hartzeko neurriei buruzkoa

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko irailaren 10ean egindako bilkuran, ondoko Erabakia hartu zuen, besteak beste:

“Biltzarreko Erregelamenduko 106. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztutako etxeko indarkeriari eta bikotekideen artekoari aurrea hartzeko

neurriei buruzko Foru Lege proposamenari zuzenketak aurkezteko epea **2001eko irailaren 28ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea.

Bigarrena.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.”

Iruñean, 2001eko irailaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da administrazioa erreformatzeko plan bat egin dezan

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da administrazioa erreformatzeko plan bat egin dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko irailaren 10ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztzen ahaliko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001eko irailaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztánnek, Biltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua eta ondokoek xedatuaren babesean, mozio bat aurkeztu du. Horren bitartez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du administrazioaren erreformarako plan bat egin dezan, zeinean jasoko baita zein den Foru Komunitatean aplikatu nahi den administrazio eredua kudeaketa publikoan ahalik eta eraginkortasun eta efizientzia handiena lortzearen.

Zioen azalpena

Bosgarren legegintzaldiaren hasieran, Lehendakaritza kontseilariak agerraldia egin zuen Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak egin zuen lehendabiziko lan bileran, haren departamentuaren ildo politikoari buruz informatzeko. Hartan, eledun sozialistak salatu zuen UPNren Gobernuak ez zuela asmorik administrazioak

eskatzten duen erreformari ekiteko, eta horri ekin beharrean "usadiozko kontrol publikotik at gertzen diren beste bide batzuk baliatzen ari dela zerbitzuak emateko". Eledun sozialistak lan bilera hartan planteatu zuen beharrezkoa dela "administrazio publikoaren erreformari aurre egitea eta Parlamentuan kontsentsu politikoa bilatzea haren erreforma orokorrera jotzeko".

Bi urte geroago, Nafarroako Gobernuak arlo horretan abiatu dituen ekimenak hutsaren hurrengo dira. Lehengo egoera berean gaude, edo are okerragoan, zeren funtzio publikotik kanpoko kudeaketa moduak aplikatzera jo baita; horrek zailago bihurtzen du jarduketan kontrol publikoa eta bidea zabaltzen du erakunde horietan sartzeko funtzio publikoko sarbidea arautzen duten berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioei jarraiki gabe.

Sozialista nafarrok zerbitzu publikoen aldaketa sakona nahi dugu. Zerbitzu publiko berriak nahi ditugu, erantzun eraginkor, seguru, zehatz eta berehalakoak emanen dizkietenak gizarte irekiago, dinamikoago eta prestatuago honen eskakizunei, ingurune zabalago eta malguagoetan lehiatu ahal izateko eskakizun etengabeak egiten baititu.

Sozialista nafarrok administrazio publikorako eredu berria proposatzen dugu: lurralde maila guztietan artikulatua eta koordinatua, herritarren beharrian errealak asetzen den-dena ematen duena, herritarrei behar duten informazioa behar duten unean berean emateko pronto, haien ekimenak araudi argi eta zehatzen bidez eta metodo zein teknologia moderno eta kalitatezkoen bidez babesteko prest, herritarren eskubideetan sakontzea eta haiekiko errespetua bere arduetan lehen izanzen duena, eskubide horiek oso-osorik onartu eta bermatzen dituena; hori dena Erabilitzaileen Eskubideen Gutunean jasoko da, gizarte-aren eztabaida zabala eragin ondotik.

Helburu hori erdietsi eta eragingarri bihurtzeko, enplegatu publiko ondo gaituak, motibatuak, arduratsuak, lanarekin konprometituak, prestakuntza eta trebetasun sozialen aldetik etengabe birziklatuak, modu objektibo batez hautatuak eta gizartean betetzen duten zereginaren garrantziaz, zintotasunaz eta erabilgarritasunaz arras jabetuak nahi ditugu.

Horregatik guztiagatik, administrazioaren erreforma orokorraren beharra defenditzen dugu, besteak beste ondoko helburuak betetzeko: administrazioa erabiltzaileengana hurbiltzea; hobeto eta azkarrago gobernatzea; zerbitzuaren erabiltzaileei protagonismoa itzultzea; kudeaketa kostuak gardenak izan daitezen lortzea; enplegatu publiko hobeki prestatu eta profesionalizatuarekin lan egi-

tea; konpromiso idatzi, neurtu eta aztertzeko modukoekin lan egitea. Hau da, Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoaren erreformarako plana egitea.

Erabaki proposamena

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiaz du 2002ko otsailaren 1a baino lehen igor dezan Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren erreformarako plan bat, administrazio eredu berria lortzeko neurriak jasoko dituen, Nafarroako Parlamentuak 2002ko lehen seihilekoan eztabaidatu eta onetsi dezan dagokion batzordean.

Iruñean, 2001eko abuztuaren 31n

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Mozioa. Horren bidez proposatzen da Internetera konektatutako ordenagailuak erosteko laguntza kanpaina luza dadin

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez proposatzen da Internetera konektatutako ordenagailuak erosteko laguntza kanpaina luza dadin".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko irailaren 10ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001eko irailaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko Eledun Juan José Lizarbe Baztán, Biltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua eta ondokoak xedatuaren babesean, mozio bat aurkeztu du Biltzarraren Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Horren bitartez, Nafarroako Gobernuaren premiaz du aurrekontu aldetik beharrezkoak

diren ekimenak abiarazi ditzan Interneteko konexioa duten ordenagailuak erosteko diru laguntzak jasotzeko kanpaina luzatzeko.

Zioen azalpena

Sozialisten taldeak Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren 2001eko aurrekontuei aurkeztutako zuzenketa bati esker, 150 milioiko kontusaila sortu zen, Interneteko konexioa duten ordenagailuak erosteko diru laguntzak emateko familiei. Sozialisten zuzenketa aho batez onetsi zuten talde parlamentarioek, baita UPNk ere, nahiz eta departamentuko arduradunek pentsatu ez zela beharrezkoa zuzenketa hura onestea.

"Etxe@: ordenagailua erosi eta nabigatzeko modurik onena" programa abiarazi zuen zuzenketa haren helburua zen "Nafarroa birtuala" garatzeko sozialista nafarrok proposatzen dugun politikaren atal bat gauzatzea, hain zuzen ere familia nafar guztiek baldintza beretan eduki ahal izatea eskura teknologia berriak zein informazio sareak, eta Interneteko erabiltzaileek sarriago nabigatzeko hartan. Zenbatekoa –150 milioi pezeta– baldintzatu egiten zuten batetik aurrekontu negoziazioaren mugek eta bestetik kanpaina abiatzearen egokitasunari buruz dirua gastatu behar dutenek zuten eszeptizismoa.

Sozialisten taldeak interesarekin jarraitu du kanpainaren garapena eta familia nafarrek gure ekimenari emandako harrera ona; departamentuko arduradunak ekimena proposatu genuenoi merezimenduren bat onartzerakoan erakutsi duen zikoizkeria ere ikusi ahal izan dugu, eta kanpaina abiatu zenean gure kezka azaldu genuen prentsan kanpainari buruzko propaganda bitxia agertu zelako.

Hori dena borobiltzeko, talde sozialistak atsekabez bizi izan du kanpainaren amaiera, bai hura bukatutzat emateko epea ustekabeaz ezarri delako bai hori abuztuaren 29an egin delako –egun xelebrea zinez, artean udako oporrak bukatu gabe zirelako–. Gure ustez, kanpainaren arrakastak hari jarraipena ematea eskatzen du, eta horrenbestez, Nafarroako Gobernuak aurrekontu aldetik beharrezkoak diren ekimenak abiarazi behar ditu, kanpaina 2001 osoan luzatu ahal izan dadin aurrekontuan bete gabe dauden kontusailen kargura.

Izan ere, talde sozialistaren ustez, kanpaina horrek beharrezkoa izaten jarraitzen du –kanpaina

bukatuko zela azken unean jakin duten erosleek erakutsi duten jarrera lekuko–; eta argi geratu da eskaerei erantzuteko diru gehiago jarri behar dela. Azken hileotan nafarrek erositako 7.000 ordenagailuetatik haratago jarri beharko luke muga Nafarroako Foru Komunitateak (aldameneko erkidego bateko gobernuak, esate baterako, 73.000 ordenagailu erosteko diru laguntzak banatu ditu, eta asmoa dute 200.000 ordenagailutara heltzeko, horretarako hiru urtetan 5.000 milioi jarrita).

Erabaki proposamena

Nafarroako Gobernuak aurrekontu aldetik beharrezkoak diren ekimenak abiaraziko ditu Interneteko konexioa duten ordenagailuak erosteko diru laguntzak jasotzeko kanpaina luzatzeko 2001 osoan, "Etxe@: ordenagailua erosi eta nabigatzeko modurik onena" kanpainako baldintza beretan.

Iruñean, 2001eko abuztuaren 31n

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da plan bat ezar dezan bidezain eta suhiltzaileen etxeak deiturikoak okupatzeko

BATASUNA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Batasuna Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da plan bat ezar dezan bidezain eta suhiltzaileen etxeak deiturikoak okupatzeko".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko irailaren 10ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentarietiek zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001eko irailaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Batasuna Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da plan bat ezar dezan bidezain eta suhiltzaileen etxeak deiturikoak okupatzeko.

Bidezain eta suhiltzaileen etxeak deiturikoak halako lanetan zihardutenen etxebizitza-beharri-zanei erantzuteko Nafarroako Foru Diputazioak garai batean sorturiko etxebizitza-azpiegiturak dira.

Gaur egun, azpiegitura horietako askok ez dute sortu zireneko zeregin hori betetzen, eta "bidezainen etxe" ugari hutsik dago, ezertarako ere erabiltzen ez dela eta eguna joan eguna etorri –mantentze ezaren ondorioz– nahiko hondatuta.

Nafarroako Gobernuak eta zenbait toki entitatek emandako informazioaren arabera, halako

315 etxebizitza dago Iruñean, Irurtzunen, Altsasun, Agoitzen, Nabaskozen, Zubirin, Erronkarin, Mugairin, Lizarran, Los Arcosen, Tafallan, Zangozan eta Tuteran.

Ekonomia eta Ogasun Departamentuak (Ondarea) emandako informazioaren arabera, "etxebizitza horien betetze maila aldatu egiten da", baina informazio hori bidezain eta suhiltzaileen etxeak dauden toki entitate batzuekin egiaztatzen ondoren ikusi ahal izan dugu betetze maila oso baxua dela berez, kasuren batean 18 etxebizitza ez baitago bat bera ere beteta.

Horrenbestez, kasurik gehienetan gutxiegi erabiliko azpiegiturak dira horiek, eta kasurik gehienetan zerbitzu publikoak eskaintzeko instalazio falta nabarmena duten herrietan daude, eta hor-taz, toki entitate horiek pozez hartuko lituzkete instalazio horiek lagatuta. Gure ustez, denbora,

mantentze eza eta erabili ez izana egunetik egu-nera hondatuz doazen instalazio horiek toki administrazioak erabil zitzakeen gizarte arloko zerbitzuak emateko.

Hori dela-eta aurkeztu du gure taldeak ondoko erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu-a premiatzen du bidezain eta suhiltzaileen etxe-ak deiturikoak okupatzeko plan bat ezar dezan eta, toki entitateekin lankidetzan, instalazio horiek lagatzeko itunak egiteko aukera azter dezan, instalazio horiek dauden udalek haien erabilera opti-mizatu eta gizarte arloko zerbitzuak eman ahal izateko.

Iruñean, 2001eko irailaren 6an

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Lehendakaria premiatzen da Osasun kontseilaria berehalaxe kendu dezan kargutik

BATASUNA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Batasuna Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Lehendakaria premiatzen da Osasun kontseilaria berehalaxe kendu dezan kargutik".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko irailaren 10ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentari-ek zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001eko irailaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Batasuna Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Osoko Bilkuran hainbat ari-nen eztabaidatu eta bozkatzeko.

Bideko Ama Birjina Ospitalean abuztuan ager-tu zen legionellak 19 pertsona ukitu ditu, eta horietako sei, zoritxarrez, hil egin ditu.

Agerpenaren larritasuna eta pertsona horien osasunarengan izandako ondorioak gorabehera, Bideko Ama Birjina Ospitalean legionella agertu izanak agerian jarri du Nafarroako osasun arloko arduradun nagusi Cervera jaunaren jokabide zaborra eta jarrera arduragabea.

Zabarkeria horren erakusgarri da Osasun Departamentuak balizko legionella broteei aurrea hartu ez izana, nahiz eta Nafarroako Parla-mentuak iragan martxoaren 6an egindako osoko bilku-ran aurrea hartzeko neurri bereziak har zitezela eskatu. Nafarroako Gobernuak oro har eta Cerve-ra jaunak bereziki ostera ere utzi dute bete gabe Nafarroako Parlamentuak agindutakoa, baina oraingo hau are larriagoa da, zeren neurri berezi horiek hartu izan balira agian ekidin ahalko bai-tzen legionellaren agerpena, eta horrenbestez, haren ondorio dramatikoak.

Bestalde, legionellaren brotea baieztatu eta zortzi egunetara eman zitzaion berria iritzi publiko-ari; horrek agerian utzi du osasun arloko ardu-radunek axolagabekeriak jokatu zutela, Bideko Ama Birjina Ospitalera hainbat arrazoi dela medio joan

behar dutenei –gaixo, senide, bisita, langile, osasun arloko profesional...– ezkutatu egin baitzieten agerpena, eta hartara nahigabe kutsatzeko arriskutan jarri zituzten, urratu egin zuten pertsona orok bere osasunari eragiten ahal dion zernahiri buruz informatuta egoteko duen eskubidea eta aldi berean ez zuten bete laneko arriskuei aurrea hartzeari buruzko araudia.

Nafarroako osasun arloko arduradun nagusi Cervera jauna, berriz, ez da gai izan halako egoera batek dakarren erantzukizunari aurre egiteko.

Nafarroako osasun arloko arduradun nagusiari bere jokabide zabar eta jarrera arduragabearen ordaina eskatu behar zaio.

Osasun arloko arduradunei esker Nafarroako osasun publikoak lortu dituen izen ona eta onarpen maila, Cervera jaunak zalantzan jarri ditue-

nak, babestu egin behar dira, eta nafarrek osasun publikoarekiko eta hura kudeatzen dutenekiko konfiantza berreskuratu behar dute.

Cervera jaunak, ordea, Parlamentuan eginiko agerraldian uko egin dio dagokion erantzukizun politikoari bere gain hartzeari.

Hori guztia dela-eta, Nafarroako Parlamentuak ondoko erabaki proposamena onetsi du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuako Lehendakariari eskatzen dio Osasun kontseilaria Cervera jauna kargutik berehala ken dezan, zabarkeriaz eta arduragabekeriak jokatu baitu Bideko Ama Birjina Ospitalean legionella agertu denean.

Iruñean, 2001eko irailaren 6an

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Ondasun higiezinaren eta garraioaren sektoreak liberatzeko presazko neurriei buruzko 4/2000 Errege Lege Dekretua indargabetu dezan, bai eta lege proiektua erretiratu ere

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: “Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Ondasun higiezinaren eta garraioaren sektoreak liberatzeko presazko neurriei buruzko 4/2000 Errege Lege Dekretua indargabetu dezan, bai eta lege proiektua erretiratu ere”.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko irailaren 10ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean

argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001eko irailaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua eta hurrengoek xedatuaren babesean, honako mozio hau Parlamentuko Osoko Bilkuran eztabaida dadin proposatzen du. Mozioa Konstituzio Auzitegiak 2001eko uztailaren 11n etxebizitza eta lurzoru arloan emandako epaiari buruzkoa da.

Proposamenaren azalpena

2001eko uztailaren 11n, Konstituzio Auzitegiak Konstituzioaren kontraktzat deklaratu zituen Lurzoruaren eta Balorazioen Araubideari buruzko apirilaren 13ko 6/1998 Legeko 16.1 eta 38. artikulua eta azken xedapena. Horrela, bada, Nafarroako Parlamentuak, Parlamentuko Talde Sozialistak, Izquierda Unidako Parlamentuko Talde Federalak, Parlamentuko Askotariko Taldeak eta Extremadurako Juntako Gobernu Batzordeak aurkezturiko konstituziokontakotasun errekurtsua estimatu zuen.

Epai horrek Autonomien Estatua eta lurzoru arloan toki erakundearen autonomia defendatzen ditu. Hori agerian uzten du, deus ez deklaraturiko artikuluek ez ezik, aipaturiko Legeko 9; 11; 14.2a) eta b); 15; 17.1 eta 18.1, 2 eta 3. artikulua Konstituzio Auzitegiaren aburuz interpretatzeko moduak ere. Izan ere, 14, 16, 21, 25, 29 eta 30. oinarri juridikoetan, Konstituzio Auzitegiak adierazten du "planeamendu orokor", "garapen-planeamendu", "lurralde-antolamenduari buruzko planak", "arलो legedia", "arलो planeamendua", "sistema orokorrak" edo "toki-izaerako dotazio publikoak" espresioek autonomi erkidego bakoitzeko hirigintza-eredua baldintzatu dezaketela, eta, horregatik, horiek interpretatzeko moduak ez duela hirigintza-arलो legegilea baldintzatu behar.

Epaiak deusez deklaritzen du 16.1 artikulua, lurzoru urbanizagarria eraldatzeko eskubidearen araubideak autonomi erkidegoek egin beharreko hirigintza-aukera batzuk hartu dituelako bere banean. Izan ere, araubide horrek gainditu egiten ditu hiri-jabetza egikaritzean espainiar guztiek berdintasuna izan dezaten ziurtatzeko "oinarrizko baldintzak". Gauza bera gertatzen da 38. artikuluari dagokionez. Artikulu horrek nahitaezko desjabetzearen prozesuetako presako okupazioaren prozedura arautzen du, eta prozedura hori deusez deklaratu du Konstituzio Auzitegiak, Estatuak nahitaezko desjabetzeari buruzko legediaren gain daukan eskumenetik at dagoelako. Arau horiek deuseztatzearen ondorioz, epaiak deusez deklaritzen du azken xedapena ere, deuseztatutako artikuluei buruzkoa.

Epai hori ikusita, Higiezinaren Sektorea eta Garraioak liberalizatzeko presako neurriei buruzko 4/2000 Errege Lege Dekretuak ez du ezertarako ere balio, Konstituzioaren kontrako ezaugarriak baititu; bertako arauak Estatuaren esku-hartzea gainditzeko dute, eta 6/1998 Legeak berak aitortzen duen autonomi printzipioari eraso egiten diote.

Epai hori Espainiako eskuinaren gobernuak lurzoru- eta etxebizitza-politikan eginiko porrot izugarriaren ondorioa da. Gaur egun, etxebizitza duin bat eskuratu ahal izatea orain dela sei urte baino askoz ere zailagoa da; are gehiago, gazte jendeak lehen etxebizitza eskuratzeari dagokionez. Horrek arrisku larriak ekartzen dizkio gizartearen kohesioari. Espainiako eskuinak udalen aurkako fronte bat antolatu du, eta haiei leporatzen die etxebizitzaren kostu handia. "Lurzoru orok izan behar du urbanizagarri" lelopean, lortu duen gauza bakarra promotore eta lurzoru-jabe handiek eginiko espekulazioari mesede egitea izan da, eta, hain zuzen ere, horiek izan dira etxebizitzaren prezioak urtean ehuneko 14 egitearen eta 1997tik metaturiko gehikuntza ehuneko 46,6koa izatearen errudun nagusiak. Laburbilduz, etxebizitza-politikan, bai PPren gobernuak bai Nafarroan kide duen UPNrenak porrot bera izan dute, eta —are larriago— ez dira arlo horretako euren jarduerazuzentzen ari.

Zeharo onartezina da Espainiako eskuinak ahaleginak egitea udalei Etxebizitza Plan Nazionalaren porrotaren errua botatzeko, hirigintza-eskubideak salduz finantzabideak lortzen dituztela leporatzen eta lurzoruaren prezioa igo izanaren erantzukizuna egozten baitie. Egiak, udalei gero eta itolarri ekonomiko handiagoa eragiten zaie, Aurrekontuen Egonkortasunerako Lege Orokorra, hirigintza-aprobetxamenduen %33ko murrizketa —%15etik %10era pasa baitira—edo gizarte-etxebizitzarako lurzoruaren eskuratzeko finantzaketarik eza bezalako neurrien bitartez.

Etxebizitza-politika serio eta zorrotz batek bitarteko berriak erabiltzera behartzen du, honako xede hauek izanen dituztenak: soberakin den etxebizitza-parkearen erabilera hoberentzea, alojeraren eskaintza eta eskarirako pizgarriak ematea, etxebizitza erabilien multzoa abian jartzea eta finkaturiko hiri-eremuak erabat birgaitzea. Eta, batez ere, politika horrek lotura izan behar du lurralde-antolamendurako eta hirirako politikekin.

Aurreko guztia aintzat harturik, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak honako mozio hau onetsi du:

1. Espainiako Gobernua premiatzea Higiezi-
nen Sektorea eta Garraioak liberalizatzeko presa-
ko neurriei buruzko 4/2000 Errege Lege Dekretua
indargabetu dezan eta Higiezi-
nen Sektorea eta
Garraioak liberalizatzeko presako neurriei buruzko
Lege proiektua, gaur egun, Parlamentuan tramita-
tzen ari dena, atzera bota dezan.

2. Espainiako Gobernua premiatzea autonomi
erkidegoekin eta Espainiako Udal eta Probintzien

Federazioarekin nahiz Parlamentuko Taldeekin
ados jarrita taxutu ditzan araudiak lurzoru arloan
aldatzeko ekimena, Konstituzio Auzitegiaren juris-
prudenzia aplikatuz, aipaturiko araudiak jurispru-
dentsia horri egokiturikoak izan daitezen, eta lur-
zoru eta etxebizitza politika berri bat.

Iruñean, 2001eko irailaren 7an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

F saila:
GALDERAK

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak, 2000 urtean zehar, aldi baterako eginiko kontratuei buruzko galdera

BATASUNA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko irailaren 10ean egindako bilkuran, Batasuna Parlamentuko Taldeak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak, 2000 urtean zehar, aldi baterako eginiko kontratuei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko irailaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Batasuna Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

2001eko martxoaren 7an, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko informazioa eskatu zion Osasun Departamentuari Parlamentuko lehendakariaren bitartez:

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak 2000n egindako lanaldi partzialeko kontratuen zerrenda, ondokoak zehaztuz:

- Kontratu bakoitzaren iraupena
- Kontratu bakoitzerako ezarritako ordainsariak

- Lanaldi partzialeko lan-kontratudun bakoitzak jarduten duen lantokia

- Lanaldi partzialeko lan-kontratudunen zerrenda

- Egun eta aste berean lanaldi partzialeko lan-kontratu bat baino gehiago dutenen zerrenda

Martxoaren 8an, eskaera bideratuta zegoela jakinarazi zion gure taldeari Parlamentuko lehendakariak. Biltzarreko Erregelamenduak ezarritako epea agortu eta zentzuzko tarte bat iragaten utzi ondoren, gure taldeak berriro eskatu zuen informazio hori, eta Lehendakariak 2001eko ekainaren 1ean adierazi zigun eskaera ostera ere bideratu zutela.

Biltzarreko Erregelamenduko 14.2 eta 14.3 artikuluek ezartzen dutenez, eskabidea Parlamentuko lehendakariaren bidez igorriko da eta, kasuan kasuko administrazioak eskabidearen xede dena eman beharko du edo adierazi, 20 eguneko epearen barrenean, zer zioak eragozten dioten hala egitea. Bada, Osasun Departamentuak ez du gaur arte ez informazioa igorri ez hori egitea eragozten dioten zioak adierazi ere, eta horrenbestez, Batasuna Parlamentuko Taldeak ondoko galdera aurkeztu du ahoz erantzuteko:

1. Zer dela-eta ez du igorri Osasun Departamentuak eskatutako informazioa Biltzarreko Erregelamenduak ezarritako epe eta modutan?

Iruñean, 2001eko irailaren 6an

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

Nafarroako Gobernuak Burlatan beste ikastetxe bat egiteko asmorik duen jakiteko galdera

BATASUNA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko irailaren 10ean egindako bilkuran, Batasuna Parlamentuko Taldeak Nafarroako Gobernuak Burlatan beste ikastetxe bat egiteko asmorik duen jakiteko egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko irailaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Batasuna Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduak xedatuaren babesean, honako galdera hauek egin dizkio Hezkuntza Departamentuari, idatziz erantzun diezaien:

Badira zenbait urte Burlatako Ermitaberrri ikastetxea espazio-arazoak izaten hasi zenetik, D eredu irakasten den ikastetxe horretan matrikulaturiko ikasleen kopuruaren ondorioz ikastetxeko instalazioak eskas geratu baitira. Hasieran 213 haurrentzako ikastetxea zenak gaur egun 377 dauzka, eta 2002-2003 ikasturterako 422 aurreikusten dira; hau da, hasierako ikasle-kopuruaren bikoitza ia.

Espaziorik ez izatearen zuzeneko ondorioa izan da 2000-2001 ikasturtean zenbait etxe aurrefabrikatu jarri behar izana, haur eta lehen hezkuntzako talde guztiei behar den guztia irakasteko ikasgela gehiago eduki ahal izateko. Hori guztia, ikastetxe batean izugarrizko garrantzia daukaten zenbait eremuri uko egitearen truke, hala nola jolastokia. Euskarazko irakaskuntza publikoko ikastetxe honek pairatzen dituen pilaketa-arazoak beste erakusgarri bat dira jangelarako toki eskasa edo ikastetxe horren instalazioek gabezia funtsezkoak izatea, hala nola bilera-aretorik, liburutegirik, laborategirik eta kirolegirik eza.

Egoera horretaz jabeturik, Gurasoen Elkarteko kideek askotan agertu diete euren kezka Nafarroako

roako Gobernuak hezkuntza-arduradunei. Kezka hori Burlatako Udalak eta Gobernuak berak ere badaukate, printzipioz; izan ere, Gobernuak Gurasoen Elkarteko kideekin konpromisoa hartu zuen Burlatan gaur egungo arazoa konpondu ahal izateko ikastetxe berri bat eraikitzeke. Ildo horretatik, Burlatako Udalak harturiko erabaki bat ere bada. Erabaki horren bitartez, Udalaren jabetzako lursail bat lagatzen da, ikastetxe hori eraikitzeke. Alabaina, Nafarroako Gobernuarekin 1999ko ekainean iritsitako ahozko akordioaren arabera 2003-2004 ikasturterako ikastetxe horrek jadanik eraikita eta abian egon behar zuen arren, gaur egun ikastetxe horretarako prestatutako proiekturik ere ez dago.

Hori guztia dela-eta, Parlamentuko gure Taldeak honako hauek jakin nahi ditu:

1.- Nafarroako Gobernuak Burlatan ikastetxe berri bat eraikitzeke asmorik al du? Baiezkoan, obraren gutxi gorabeherako hasiera- eta bukaera-egunak adieraz bitez.

2. Baiezkoan, ikastetxe hori eraikitzeke proiektua prestatuta al dauka Nafarroako Gobernuak? Obra esleitzeko lehiaketa publikoa noizko aurreikusten da?

3. Proiektu hori ez baldin bada egin, zer arrazoi eragotzi du hori, eraikuntza-konpromisoa 1999koa dela kontuan izanik?

4. Departamentuak ikastetxe horretan zein hizkuntza eredu irakasteko asmoa dauka, printzipioz?

5. Halaber, badirudi ohiko kontua bilakatzen ari dela Departamentuak etxe prefabrikatuak erabiltzea ikastetxe publikoetan lekuri ezagatik sorturiko arazoak konpontzeko. Sare publikoko zenbat ikastetxek zeuzkaten etxe prefabrikatuak euren instalazioetan 2000-2001 ikasturtean? Zenbatek eta zeinek daukate euren instalazioetan etxe prefabrikatuak jartzeko asmoa?

Iruñean, 2001eko abuztuaren 28an

Eleduna: Joxe Pernando Barrena Arza

Altsasuko Galdan enpresak botatzen dituen ke toxikoei buruzko galdera

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko irailaren 10ean egindako bilkuran, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak Altsasuko Galdan enpresak botatzen dituen ke toxikoei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko irailaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion.

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuak zenbait alditan ikuskatu du Altsasun dagoen Galdan, SA enpresa; izan ere, salatu dute ez ohiko ke-ihesak gertatzen direla atmosferarantz, isurtze sistemak ez duelako ongi funtzionatzen. Isurtze horiek metal astun eta toxikoen hondarrak dituzte eta Ibarrea, La Carbonilla eta Ameztia auzoetako bizilagunek arnastu egin ditza-kete.

Enpresak esan zuen izan zirela, lehen, iragazkiekin arazoak, eta berehalaxe konpondu zirela; bai herriko biztanleek bai udalak sumatu dute, hala ere, kontrolik gabeko isurtze ustezko horiek egiten direla oraindik ere, gaeuz bereziki, eta hori

arriskutsua da ingurumenarentzako eta pertsonen osasunarentzako.

Gogoratu beharrekoa da enpresa hori lehen ere salatu zutela, orain hiru urte, "Aluminios Alzania, SA" izena zuenean, zepak pilatzeagatik lurrazpiko filtrazio toxikoak gertatzen baitziren.

Horregatik, Nafarroako Gobernuarengandik hau jakin nahi da:

– Zer neurri hartu dira edo zer ikuskapen egin 2001eko urtarrilaren 1etik enpresa horren isurketi dagokienez, eta zein izan dira emaitzak?

– Altsasuko biztanleek behin eta berriz egin dituzten protesta eta salaketak direla-eta, ba al du asmorik Nafarroako Gobernuo Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak ikerketa sakon eta zorrotzen bat egiteko, orain arteko ohiko ikuskapenez haraindi, horrela kontu hau behin betikoz argitu dadin?

– Galdan, SA enpresak atmosferara isurtzen dituen ke toxikoak direla eta, zehapen espediente-rik ireki al dute Nafarroako Gobernuo ingurumen edo osasun arloko arduradunek?

Hala bada, zein fase administratibotan daude?

Behin eta berriro izaten diren salaketak kontuan hartuta, ba al du asmorik Nafarroako Gobernuak Galdan, SA enpresak atmosferarantz isurtzen dituen ke ikuskapena zorrotzeko?

– Nafarroako Gobernuak eginiko ikuskapenetan, zer gai toxiko atzeman dira, arriskutsuak izan daitezkeenak ingurumenarentzako eta pertsonen osasunarentzako, eta zer kopurutan?

Iruñean, 2001eko abuztuaren 28an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Vianako Printzea Erakundeak txostenak eta hirigintza planak onesteko erabiltzen dituen prozedurei buruzko galdera

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko irailaren 10ean egindako bilkuran, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak Vianako Printzea Erakundeak txostenak eta hirigintza planak onesteko erabiltzen dituen prozedurei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko irailaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion.

Hirigintza planak eta horien aldaketak onesteko erabiltzen diren prozedurei buruz, hau jakin nahi da Vianako Printzea Erakundeari dagokionez:

– Vianako Printzea Erakundeak katalogatutako eta inbentarioan sartutako eraikinei buruz ematen dituen txostenak lotesleak al dira hirigintza planak eta horien aldaketak onesterakoan, ala ez dira?

Iruñean, 2001eko abuztuaren 29an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Itoizko urtegian kata arkeologiko edo indusketarik egin den jakiteko eta kaltetutako ondasunei buruzko beste zenbait alderdi ezagutzeko buruzko galdera

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak ondoko galdera aurkeztu zuen: "Itoizko urtegian kata arkeologiko edo indusketarik egin den jakiteko eta kaltetutako ondasunei buruzko beste zenbait alderdi ezagutzeko". Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko irailaren 10ean egindako bilkuran, galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko irailaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak, Nafarroako Parla-

mentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion.

Itoizko urtegia eraiki eta betetzeko obrez denez bezainbatean, eta ondare historiko eta kulturalari buruzko araudia betetzeari dagokionez, hau jakin nahi da:

– Egin al da kata edo indusketa arkeologikorik urtegiaren ontzian? Hala bada, zenbat, noiz eta zein izan dira emaitzak?

– Zein dira kaltetutako ondasunak eta zer neurri hartu dira horiek babesteko? Egin al da ezer Uritz eta Orbaizeko jauregiei dagokienez?

Iruñean, 2001eko abuztuaren 30ean

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Nafarroa jatorriko deitura duten ardoak sustatzeari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSÉ M^a AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko irailaren 10ean egindako bilkuran, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak Nafarroa jatorriko deitura duten ardoak sustatzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko irailaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

José María Aierdi Fernández de Barrenak, "Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco" Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengoek xedatuaren babesean, galdera hau egin dio Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariari, idatziz erantzun diezaion:

Orain gutxi, eta Nafarroako jatorrizko deitura duten ardoen merkatu kuota gutxitu dela-eta, gure

taldeak jakin nahi izan zuen zer aurreikusi duen zure departamentuak gutxitze hori geldiarazteko. Zure erantzun "zabalean" adierazten zenuenez, merkatua galtzea egoeraren baitakoa zen, eta edonola ere kontseilu arau-emailea zen konponbi-deak jarri behar zituena.

2001eko lehenbiziko hiruhileko datuak aurkeztu direlarik, merkatu galtzeak bere horretan dirau: botilako ardoaren salmentek % 3 egin dute behera.

Gure ustez, egoera honek sustatze ekintza sendoagoak eskatzen ditu

1.- Zure departamentuak zer uste du, beharrezkoak direla sustatze ekintza sendoago eta kementsuagoak, edo egoeraren baitan gaudela eta egungo neurriekin gure merkatu-kuotak gora egin eta lehengora bueltatuko dela?

2.- Zer-nolako parte-hartze ekonomikoa izanen du Nafarroako Gobernuak Jatorrizko deiturari buruzko plan estrategikoan jasotako sustatze-ekintzetan?

Iruñean, 2001eko abuztuaren 29an

Foru parlamentaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

Erriberriko ardo museoari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSÉ M^a AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko irailaren 10ean egindako bilkuran, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak Erriberriko ardo museoari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko irailaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

José María Aierdi Fernández de Barrenak, "Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Parti-

do Nacionalista Vasco" Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengoek xedatuaren babespean, galdera hau egin dio Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariari, idatziz erantzun diezaion:

1.- Zein da Erriberriko eraikitako Ardoaren museoaren egungo egoera?

2.- Zergatik ez da oraindik jendearentzako ireki?

Iruñean, 2001eko abuztuaren 29an

Foru parlamentaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

Martzillan oinezkoentzako pasabide bat eraikitze eskaerari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI FÉLIX M^a TABERNA MONZÓN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko irailaren 10ean egindako bilkuran, foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak Martzillan oinezkoentzako pasabide bat eraikitze eskaerari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko irailaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Félix Taberna Monzónnek, Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, hurrengo galdera egin du, idatziz erantzun dakion:

Orain gutxi, Eder Partzuergoak "Aragón ibaiko malkarrak" izeneko natur bidea prestatu du Martzillan. Ordea, aipatu herritik ezin da bide horretaraino oinez heldu; izan ere, Villafrancarako

bidean Aragón ibaia zeharkatzen duen zubia estua da eta oinezkoek ezin dute pasa. Martzillako Udalak, jende asko ibiltzen denez oinez paseatzen eta bizikletan, eskatu du oinezkoentzako pasabide bat eraiki dadila aipatu zubiaren ondoran, horren egitura aprobetxatuz. Parlamentari honek uste du azpiegitura horrek mesede egingen diola, gainera, Eder Partzuergoak prestatutako natur bidea.

Horregatik, hau jakin nahi dut:

– Ba al du Herrilan Departamentuak Martzillako Udalak eginiko eskaeraren berri, hau da, Martzilla-Villafranca errepideak Aragón ibaia zeharkatzeko duen zubi ondoan oinezkoentzako pasabide bat egiteko eskaeraren berri? Izan al du inongo hartu emanik Martzillako Udalarekin?

– Zer iritzi du departamentuak obra horri buruz?

– Ba al da eperik obra hori egiteko?

– Ezezkoan, zer arrazoi edo oztopo daude eskatutakoa ez egiteko?

Iruñean, 2001eko abuztuaren 30ean

Foru parlamentaria: Félix Taberna Monzón

Aurrekontuko “Gizarte-komunikabideetako euskarari buruzko programak” kontusailari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko irailaren 10ean egindako bilkuran, foru parlamentari Begonia Errazti Esnal andreak aurrekontuko “Gizarte-komunikabideetako euskarari buruzko programak” kontusailari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko irailaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeari atxikiriko Eusko Alkartasunako foru parlamentari

Begonia Errazti Esnal andreak, Biltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion.

2001erako aurrekontuetan “Gizarte-komunikabideetako euskarari buruzko programak” izeneko kontusail bat dago.

Parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

– 43200-42000-4810-4551 proiektuaren betetze-egoera.

– Zer komunikabidetan aplikatzen diren programa horiek eta zertan dautzan.

– Gizarte-komunikabideak hautatzeko irizpideak.

Iruñean, 2001eko irailaren 1ean

Foru parlamentaria: Begonia Errazti Esnal

Aurrekontuko “Euskarari buruzko programa eta ekimen kulturalak” kontusailari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko irailaren 10ean egindako bilkuran, foru parlamentari Begonia Errazti Esnal andreak aurrekontuko “Euskarari buruzko programa eta ekimen kulturalak” kontusailari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko irailaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeari atxikiriko Eusko Alkartasunako foru parlamentari

Begonia Errazti Esnal andreak, Biltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion.

2001erako aurrekontuetan “Euskarari buruzko programa eta ekimen kulturalak” izeneko kontusail bat dago.

Parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

– 43200-42000-4810-4551-02 proiektuaren betetze-egoera.

– Zer-nolako programa eta ekimen diren diruz lagundurikoak.

– Ekimenak hautatzeko irizpideak.

Iruñean, 2001eko irailaren 1ean

Foru parlamentaria: Begonia Errazti Esnal

Aurrekontuko “Eremu ez-euskalduneko ikastolentzako diru-laguntza berezia” kontusailari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko irailaren 10ean egindako bilkuran, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurrekontuko “Eremu ez-euskalduneko ikastolentzako diru-laguntza berezia” kontusailari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko irailaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeari

atxikiriko Eusko Alkartasunako foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak, Biltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion.

2001erako aurrekontuetan, “Eremu ez-euskalduneko ikastolentzako diru-laguntza berezia” izeneko kontusail bat dago.

Parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

– 43200-42000-4811-4551 proiektuaren betetze-egoera.

– Zein ikastolak jaso dute diru-laguntza?

Iruñean, 2001eko irailaren 1ean

Foru parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Aurrekontuko “Azterlan eta proiektu soziolinguistikoak egitea” kontusailari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko irailaren 10ean egindako bilkuran, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurrekontuko “Azterlan eta proiektu soziolinguistikoak egitea” kontusailari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko irailaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeari atxikiriko Eusko Alkartasunako foru parlamentari

Begoña Errazti Esnal andreak, Biltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion.

2001erako aurrekontuetan, “Azterlan eta proiektu soziolinguistikoak egitea” izeneko kontusail bat dago.

Parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

– 43200-42000-2400-4551-02 proiektuaren betetze-egoera.

– Zein azterlan egin da, Nafarroako zein eremutan, eta zein enpresa izan da/dira azterlan horiek egitearen arduradun?

– Azterlana egitea kasuan kasuko enpresari/enpresei esleitzeko irizpideak.

Iruñean, 2001eko irailaren 1ean

Foru parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Aurrekontuko “Nafarroako udal eta kontzejuei euskararen arloan laguntzeko programa” kontusailari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko irailaren 10ean egindako bilkuran, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurrekontuko “Nafarroako udal eta kontzejuei euskararen arloan laguntzeko programa” kontusailari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko irailaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeari

atxikiriko Eusko Alkartasunako foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak, Biltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion.

2001erako aurrekontuetan, “Nafarroako udal eta kontzejuei euskararen arloan laguntzeko programa” izeneko kontusail bat dago.

Parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

– 43200-42000-4455-4551 proiektuaren betetze-egoera.

– Zein udalek eta zein kontzejuk jaso dituzten laguntzak.

– Laguntza-programa esleitzeko irizpideak.

Iruñean, 2001eko irailaren 1ean

Foru parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Aurrekontuko “Euskarazko argitalpenen eta ikus-entzunezkoen funtsak eskuratzea” kontusailari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko irailaren 10ean egindako bilkuran, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurrekontuko “Euskarazko argitalpenen eta ikus-entzunezkoen funtsak eskuratzea” kontusailari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko irailaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeari

atxikiriko Eusko Alkartasunako foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak, Biltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion.

2001erako aurrekontuetan, “Euskarazko argitalpenen eta ikus-entzunezkoen funtsak eskuratzea” izeneko kontusail bat dago.

Parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

– 43200-42000-6081-4551 proiektuaren betetze-egoera.

– Argitalpenen eta ikus-entzunezkoen zer funts eskuratu diren.

Iruñean, 2001eko irailaren 1ean

Foru parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Aurrekontuko “Interes kultural eta artistikoko ondasunak eskuratzea” kontusailari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko irailaren 10ean egindako bilkuran, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurrekontuko “Interes kultural eta artistikoko ondasunak eskuratzea” kontusailari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko irailaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeari

atxikiriko Eusko Alkartasunako foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak, Biltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion.

2001erako aurrekontuetan “Interes kultural eta artistikoko ondasunak eskuratzea” izeneko kontusail bat dago.

Parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

– 42000-50000-6056-4511 proiektuaren betetze-egoera.

– Zer ondasun eskuratu diren eta zer irizpideri jarraitu zaion horiek eskuratzeko.

Iruñean, 2001eko irailaren 1ean

Foru parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Aurrekontuko “Pablo Sarasate Fundazioarekin hitzarmena” kontusailari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko irailaren 10ean egindako bilkuran, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurrekontuko “Pablo Sarasate Fundazioarekin hitzarmena” kontusailari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko irailaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeari

atxikiriko Eusko Alkartasunako foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak, Biltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion.

2001erako aurrekontuetan, “Pablo Sarasate Fundazioarekin hitzarmena” izeneko kontusail bat dago.

Parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

– 42110-51000-4816-4561-02 proiektuaren betetze-egoera.

– Hitzarmenaren kopia bat.

Iruñean, 2001eko irailaren 1ean

Foru parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Aurrekontuko “Barandiaran Fundazioarekin hitzarmena” kontusailari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko irailaren 10ean egindako bilkuran, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurrekontuko “Barandiaran Fundazioarekin hitzarmena” kontusailari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko irailaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeari

atxikiriko Eusko Alkartasunako foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak, Biltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion.

2001erako aurrekontuetan “Barandiaran Fundazioarekin hitzarmena” izeneko kontusail bat dago.

Parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

– 42110-51000-4816-4561-04 proiektuaren betetze-egoera.

– Hitzarmenaren kopia bat.

Iruñean, 2001eko irailaren 1ean

Foru parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Aurrekontuko “Eusko Ikaskuntzarekin hitzarmena” kontusailari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko irailaren 10ean egindako bilkuran, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurrekontuko “Eusko Ikaskuntzarekin hitzarmena” kontusailari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko irailaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeari

atxikiriko Eusko Alkartasunako foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak, Biltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion.

2001erako aurrekontuetan “Eusko Ikaskuntzarekin hitzarmena” izeneko kontusail bat dago.

Parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

– 42110-51000-4816-4561-03 proiektuaren betetze-egoera.

– Hitzarmenaren kopia bat.

Iruñean, 2001eko irailaren 1ean

Foru parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Aurrekontuko “Liburutegi-sarerako argitalpenen eta ikus-entzunezkoen funtsak eskuratzea” kontusailari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko irailaren 10ean egindako bilkuran, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurrekontuko “Liburutegi-sarerako argitalpenen eta ikus-entzunezkoen funtsak eskuratzea” kontusailari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko irailaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeari atxikiriko Eusko Alkartasunako foru parlamentari

Begoña Errazti Esnal andreak, Biltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion.

2001erako aurrekontuetan “Liburutegi-sarera-ko argitalpenen eta ikus-entzunezkoen funtsak eskuratzea” izeneko kontusaila dago.

Parlamentari honek hauxe jakin nahi luke:

– 42120-51000-6081-4521-02 proiektuaren betetze-egoera.

– Argitalpenen eta ikus-entzunezkoen zein funts eskuratu diren eta zein hizkuntzatan dauden horiek.

Iruñean, 2001eko irailaren 1ean

Foru parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Aurrekontuko “Kultur etxeak eta bestelako udal kultur guneak eraiki eta haiek ekipamenduz hornitzea” kontusailari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko irailaren 10ean egindako bilkuran, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurrekontuko “Kultur etxeak eta bestelako udal kultur guneak eraiki eta haiek ekipamenduz hornitzea” kontusailari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko irailaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeari

atxikiriko Eusko Alkartasunako foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak, Biltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion.

2001erako aurrekontuetan “Kultur etxeak eta bestelako udal kultur guneak eraiki eta haiek ekipamenduz hornitzea” izeneko kontusail bat dago.

Parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

– 42120-51000-7600-4521-02 proiektuaren betetze-egoera.

– Zein kultur etxe edo kultur gune eraiki diren edo eraikitze-fasean dauden. Eraikuntza-proiektuen gaur egungo egoera.

Iruñean, 2001eko irailaren 1ean

Foru parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Aurrekontuko “Argitalpenak erosi eta haien harpidetza egitea” kontusailari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko irailaren 10ean egindako bilkuran, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurrekontuko “Argitalpenak erosi eta haien harpidetza egitea” kontusailari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko irailaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeari

atxikiriko Eusko Alkartasunako foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak, Biltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion.

2001erako aurrekontuetan “Argitalpenak erosi eta haien harpidetza egitea” izeneko kontusail bat dago.

Parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

– 41000-00000-2202-4211 proiektuaren betetze-egoera.

– Eginiko harpidetzen eta erositako argitalpenen xehetasunak.

Iruñean, 2001eko irailaren 1ean

Foru parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Aurrekontuko “Teresatarren eraikina egokitzea” kontusailari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko irailaren 10ean egindako bilkuran, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurrekontuko “Teresatarren eraikina egokitzea” kontusailari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko irailaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeari

atxikiriko Eusko Alkartasunako foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak, Biltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion.

2001erako aurrekontuetan “Teresatarren eraikina egokitzea” izeneko kontusail bat dago.

Parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

– 41120-10001-6020-4241-02 proiektuaren betetze-egoera.

– Aipaturiko eraikinean eginiko edo egitekoak diren egokitze-lanei buruzko xehetasunak eta egokitze horren xedea.

Iruñean, 2001eko irailaren 1ean

Foru parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Aurrekontuko “0 eta 3 urte arteko haurrak eskolatzeko hitzarmenak udalekin” kontusailari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK EGINA

